# ERROMESEN GELTOKIA
# ESTACIÓN DEL PEREGRINO




### Tren-geltokia eta erromesen aterpea

Debako tren-geltokiko eraikina 1899an eraiki zuten, trenbidea 1893an herrira iritsi ostean. Eraikinak XIX. mendearen amaiera-aldeko industriari eta trenari lotutako arkitekturaren ezaugarriak ditu eta Santiago Bideko Multzo Monumentalaren barruan dago.

Oin angeluzuzena du eta bi isurkiko teilatua, isurkien maldak oso handiak direlarik. Sarrerako ateak eta arkuzko leiho handiak oso modu erregularrean banatuta daude eta adreilu prentsatuen bidez nabarmenduta; ertzak eta frisoak egiteko, berriz, material bera erabili zuten. Harearrizko hormek eta kareharrizko zokaloek nortasuna ematen diete fatxadei. Nasaren gainean, metalezko markesina bat dago, estetika eta arrazionaltasun estrukturala konbinatuz.

Debako erromesen aterpeak ("Geltokia") eraikinaren lehen eta bigarren solairuak hartzen ditu, garai batean "Compañía de Ferrocarriles Vascongados" enpresako langileen etxebizitzek hartzen zuten espazioa alegia. Gaur egun, eraikina Eusko Trenbide Sarea sozietate publikoarena da.

Sozietateak Debako Donejakue Bide Lagunen Elkarteari laga zion eraikina 2010ean, erromesentzako aterpe gisa prestatzeko.

### Santiago Bidea Deban

Santiagorako erromesaldiek Erdi Aroan izan zuten beren goreneko unea, bideak erromesez betetzen ziren. Deba, kostaldeko beste herrien antzera, erromesen sarbide garrantzitsu bihurtu zen; erromesak oinez nahiz itsasoz iristen ziren herrira eta Santiagora jarraitzen zuten, kostaldeko herriak lotzen zituzten bideetatik barrena. Horren lekuko dira, besteak beste, Santixo baserria, Sasiolako ospitale-komentua eta Sindika etxea.

Kostaldeko ibilbideak gogorrak ziren eta errege katolikoek barrualdeko bideak prestatu zizkieten erromesei, ibilbidea samurtze aldera. Hala, kostaldeko bidea bigarren mailako bide bihurtu zen, mendeetan zehar ahaztuta egon dena. Dena den, XXI. mendearen lehen urteetan gora egin zuen izugarri eta Deba erromesentzako geraleku eta atsedenleku estrategikoa da berriro.

### Bidea, euskara eta Wilhem von Humboldt-en bidaiak

1801eko udaberrian, Wilhelm von Humboldt politikari eta hizkuntzalari aleman ospetsuak zaldiz egin zuen kostaldeko bidearen zati bat. Bidaia egiteko haren benetako arrazoia ez zen erromesaldia egitea izan; bere asmoa zen Euskadi ezagutzea eta euskaldunen hizkuntza, euskara ikastea, eta dezente ikasi zuen gainera. Eta autore aleman haren lanak dira, hain zuzen ere, honako bi liburu hauek: *"Los Vascos. Aportaciones sobre un viaje por el País Vasco en Primavera de 1801"* eta *"Sobre la Lengua y Nación Vasca"*.

Debatik pasa ondoren, Markinan amaitu zuen bere etapa. Han, Juan Antonio Mogel apaiza, idazlea eta hizkuntzalaria ezagutu eta haren lagun handia egin zen.



Sasiolako ospitale-komentua.
Convento hospital de Sasiola.

### Estación de tren y albergue de peregrinos

El edificio de la estación de ferrocarril de Deba fue construido en 1899, tras la llegada del ferrocarril a la localidad en 1893. Es un inmueble característico de la arquitectura industrial y ferroviaria de finales del siglo XIX, afecto al Conjunto Monumental del Camino de Santiago con grado de protección media.

Su planta es rectangular con tejado a dos aguas de pendientes muy pronunciadas. Las puertas de acceso y las grandes ventanas en arco tienen una distribución muy regular, están remarcadas con ladrillo prensado y los esquinales y cenefas son del mismo material. Los muros de arenisca y los zócalos de caliza otorgan carácter a las fachadas. Sobre el andén, dispone de una marquesina metálica que combina estética y racionalidad estructural.

El albergue de peregrinos de Deba, "Geltokia", ocupa la primera y la segunda planta del edificio, espacio que ocupaban antiguamente las viviendas de los empleados de la "Compañía de Ferrocarriles Vascongados". En la actualidad, el edificio es propiedad de la sociedad pública Eusko Trenbide Sarea, quien cedió en 2010 este espacio a la Asociación de los Amigos de los Caminos a Santiago de Deba para ser habilitado como albergue de peregrinos.




### El camino de Santiago en Deba

Durante la Edad Media las peregrinaciones a Santiago encuentran su mayor esplendor y los caminos se llenan de peregrinos. Deba, al igual que otras localidades costeras, se convirtió en una importante puerta de entrada de peregrinos que tanto a pie como por mar llegaban a la localidad para continuar su marcha a Santiago, siguiendo los caminos que unían las villas costeras. Testigo de ello son, entre otros, el caserío Santixo, el convento hospital de Sasiola y la casa Síndica.

A la dureza de la ruta costera, se le sumó el apoyo de los reyes cristianos a la peregrinación por caminos interiores, por lo que el Camino de la Costa pasó a ser una ruta secundaria que se ha mantenido en el olvido durante siglos. Sin embargo, en los primeros años del siglo XXI ha vivido un auge extraordinario que ha vuelto a convertir a Deba en lugar estratégico de parada y de descanso para los peregrinos.



### El camino, el euskara y los viajes de Wilhem von Humboldt

En la primavera de 1801 el famoso político y lingüista alemán Wilhelm von Humboldt realizó a caballo parte del recorrido del Camino del Norte. El motivo principal de su viaje no fue la peregrinación, sino un acercamiento al País Vasco y al estudio de la lengua vasca, el euskara, de la cual alcanzó un notable conocimiento. Precisamente son del autor alemán las obras *"Los Vascos. Aportaciones sobre un viaje por el País Vasco en Primavera de 1801"* y *"Sobre la Lengua y Nación Vasca"*.

Tras pasar por Deba, su etapa finalizó en Markina. Allí conoció e hizo gran amistad con el sacerdote, literato y lingüista Juan Antonio Mogel.

Informazio gehiago:

Para más información:

Egilea/Realiza: Kaioa (943 19 20 30 - Deba)

Geoparkea Costa Vasca - Euskal Kostaldea
European Geoparks
Global Geoparks Network
Debako Udala
Turismo Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Euskadi Basque Country
euskal trenbide sarea
Asociación de Amigos de los Caminos a Santiago, de Deba